MUBIL FUNDAZIOAREN ESKUZAITZETAKO EGOITZA BERRIKO BULEGOETARAKO KABINA INTSONORIZATUAK HORNITZEKO ETA INSTALATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA (ESP. MUBIL2025-001)

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren objektua Mubil Fundazioaren egoitza berrirako kabina intsonorizatuen hornidura eta instalazioa izango dira, dokumentu honetan adierazitako xehetasunen arabera.

Kontratuak barne izango ditu kabinak instalatzeko beharrezkoak diren lan eta kostu guztiak, besteak beste, garraioa, deskarga, bilgarriak kentzea, obraratzea, instalazioa, bilgarrien hondakinak kentzea eta instalazioaren ondorengo garbiketa.

Erosiko diren produktuen ezaugarriak bat etorriko dira jarraian ageri den fitxa teknikoko espezifikazioekin, betiere koherentzia bisuala mantenduz, kalitatea arriskuan jarri gabe.

Ezaugarri teknikoak dira lizitatzaileek eskaintzen dituzten kabina intsonorizatuen modeloek bete beharreko gutxieneko eskakizunak. Nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

Mota, kolore, itxura eta estetika orokorraren inguruko ezaugarriak agiri honetan adierazitakoen antzekoak izango dira.

Lizitatzaileek eskainiko dituzten kabinen ezaugarri teknikoak agiri honetan adierazitako berak izango dira, edo bertan adierazitako tarte onargarrien barne egongo dira.

Horrela, kalitate, tamaina eta estetikaren aldetik, agiri honetan deskribatzen direnen antzeko kabina intsonorizatuak eskaini beharko dituzte lizitatzaileek.

2. IRIZPIDE OROKORRAK

Hona hemen bulegoko kabina intsonorizatuen irizpide orokorrak:

- **Funtzionalitatea**: kabinak agirietan deskribatu diren Mubil Fundazioaren behar funtzionaletara egokitu beharko dira.
- **Ergonomia:** ergonomia eta segurtasun printzipioak errespetatuko dira.
- Fabrikazioaren **kalitatea** eta iraunkortasuna.
- **Ingurumen jasangarritasuna,** diseinuaren eta baliatutako materialen aldetik.

Kontratuak barne izango ditu kabinen instalazioa eta muntaketa, bai eta bilgarrien eta sortutako hondakinen bilketa ere.

3. ZERBITZU TALDEA ETA BITARTEKO TEKNIKOAK

Adjudikaziodunak kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren zerbitzu taldea eta bitarteko teknikoak izango ditu eskura:

Zerbitzu taldea

Adjudikaziodunak kontratu honen objektua diren hornidura eta gainerako lanak gauzatzeko kualifikatuta eta behar bezala prestatuta dauden langileak izango ditu eskura. Langile horiek adjudikaziodunaren kontura izango dira, eta dagokien prezioa kontratuaren prezioaren barne ulertuko da.

Adjudikazioduna izango da bere langileen jarduketatik erator litezkeen kalte eta galeren erantzule bakarra.

Bitarteko teknikoak

Adjudikaziodunak agiri honen objektuak barne hartzen dituen hornidura eta gainerako lanetarako beharrezkotzat jotzen diren bitarteko lagungarri eta garraio bitartekoak izango ditu eskura.

Bitarteko lagungarriak izango dira, besteak beste, eskorgak, orga hutsak, transpaletak, plataformak eta objektua egikaritzeko behar den beste edozein makina edo tresna.

Adjudikazioduna izango da bitarteko horien erabilera eta mantentze zuzenaren arduraduna, eta inolako arriskurik ez dakartela ziurtatu beharko du, ez horiek maneiatzen dituzten langileentzat, ez erabiltzaileentzat eta ezta Mubil Fundazioaren instalazioentzat ere.

4. SEGURTASUN ETA KALITATE KONTROLEKO ARAUDIA

Bulegoko altzariei aplikatzen zaien segurtasun eta kalitate kontroleko araudia bete beharko dute kabinek.

Kabinetako elementu guztiak ertz edo izkinarik gabekoak eta erabiltzaileentzat zorrotzak edo arriskutsuak izan litezkeen elementurik gabekoak izango dira.

5. HORNITUKO DIREN KABINA INTSONORIZATUAK

Mubil Fundazioak gutxienez bi lagunentzako kabina intsonorizatuak behar ditu Eskuzaitzeta industria guneko bulego berrietarako. Funtzio anitzeko espazio intsonorizatuak izango dira, bertan bi pertsonen arteko aurrez aurreko bilera/elkarrizketa pribatuak izateko, hala nola deiak edo bideodeiak, banakako bideokonferentzia pribatuak eta baita *brainstorming* saio txikiak ere. Etenik gabe eta behar den pribatutasuna eta kontzentrazioa ziurtatuz.

Hori guztia erabateko konfidentzialtasunarekin, ahotsaren pribatutasunarekin, bulegoko gainerako kideei eragozpenik egin gabe eta bulegoko zarataren eragozpenik gabe. Intsonorizazio handia, oihartzunik gabeko akustika, argiztapena eta barruko airearen berrikuntza ziurtatuko dute.

Espazio eroso eta praktikoak izango dira, argiztapen eta aireztapen onenekin.

Kabina intsonorizatuak, kalitate goreneko akaberekin eta espazioak errespetatu eta bateratzen dituzten materialekin.

Kanpoko akaberari dagokionez, markoa zuria izango da.

Hauek dira kabina intsonorizatuek bete beharreko **tamaina eskakizunak**:

Kanpoko neurriak: 220 cm x 220 cm x 115 cm (altuera x zabalera x sakonera).
Barneko neurriak: 200 cm x 200 cm x 100 cm (altuera x zabalera x sakonera).

Ateak 200 cm-ko altuera eta 85 cm-ko zabalera izango ditu, eta sistema magnetiko bidezko itxitura leuna.

Kabina barruan, mahai laminatu zuria beharko dugu, hatz marken aurkako gainazalarekin eta 70 cm x 70 cm x 50 cm-ko (altuera x zabalera x sakonera) tamainarekin. Eta sofa batzuk, bizkarralde zuzeneko besaulkiak, grisez tapizatuak.

Kabina intsonorizatuek mugikortasuna eta malgutasuna eskaini beharko dituzte, kabinak bulegoetako puntu desberdinetan kokatzeko aukera emanez, mugikortasun kit gurpildun bati (gurpilak eskaintzaren barne egongo dira) eta egonkortasuna zein mugikortasuna bermatzen dituen finkatze sistema edo antzeko mekanismo bati esker. Halaber, *Plug and Play* motako sistema elektriko bat izango dute, kokalekua aldatuz gero, instalazio azkarra ziurtatzeko.

% 10eko desbideratzeak (tolerantzia + - % 10) onartuko dira dokumentu honetan aipatzen diren kabina intsonorizatuen neurriekiko.

Hona hemen kabina intsonorizatuen **eskakizun funtzionalak**:

- *Errendimendu akustikoa:*

  Kabina intsonorizatuen ezinbesteko baldintza da. Kabinek, gutxienez, 30 db-ko (DS,A) emaitza lortu behar dute proba laborategi baimendu bateko proba estandarizatu batean. A motako isolamendu akustikoaren ziurtagiria eskatuko da gutxienez, ISO 23351-1:2020 arauaren arabera, eta memoria teknikoarekin batera aurkeztuko da.

  Kabinetako beira ijeztua izango da, soinu kontrolarekin (4 mm + 4 mm).

- *Aireztapena edo aire fluxua:*

  Aireztapena edo aire fluxua (emaria) 280 m3/h-koa izango da gutxienez.
  Eta erabilera aktiborako modu bat eta beste modu ez aktibo bat izango du.
  Modu ez aktiboan, haizagailuek gehieneko potentziaren % 40an funtzionatuko dute gehienez.
  Airearen zirkulaziorako gutxieneko espazioa: 5 cm aldamenetan, 15 cm goian.

- *Argiztapena:*

  4000 k-ko LED argiak. Argiaren distira 160 lux-ekoa izango da gutxienez.

- *Energia kontsumoa:*

  Kabina intsonorizatuak energia kontsumo txikikoak izango dira: 50 W gehienez erabilera aktiboan, eta 20 W gehienez modu ez aktiboan.

  Sarrera: 100-240 VCA (8,0 A), 50-60 Hz. Eta VCA irteera (korronte hargunea): 100-240 VCA (6,6 A), 50-60 Hz.

  Kabinak bi korronte hargune izango ditu gutxienez, horietako bakoitza USB-A + USB-C kargagailuetarako irteerarekin. Baldintza hori ezinbestekoa da kabinaren erabilera funtzionalerako; izan ere, zenbait gailu elektroniko (ordenagailu eramangarriak, tabletak, mugikorrak) erabiliko dira kabinetako bileretan.

- *Garbiketa eta mantentzea:*

  Alfonbra, kabina barruko moketa, ile motzekoa izango da, antiestatikoa eta orbanen aurkakoa.

  Kanpoaldeak erraz ordezkatu eta instalatzeko modukoak izango dira.

  Pieza guztiak erraz ordezkatu eta konpontzeko modukoak izango dira.

% 5eko desbideratzeak (tolerantzia + - % 5) onartuko dira dokumentu honetan aipatzen diren kabina intsonorizatuen <u>neurri funtzionalekiko</u>.

6. <u>ENTREGATZEKO BALDINTZAK</u>

Hornidura, muntaketa eta instalazioa Mubil Fundazioaren egoitza berriko instalazioetan egingo dira, Eskuzaitzeta industria gunean, Oianguren 1, 20160 Zubieta-Donostia (Gipuzkoa) helbidean.

Zerbitzu horiek barne izango dituzte produktuen manipulazioa eta erabateko berrikusketa, instalazioa amaitu ondoren. Antzemandako akats edo narriadurak 10 egun naturaletik beherako epean konpondu beharko dira.

Kabinak entregatutzat emango dira helmugara iritsi, erabat instalatuta eta erabiltzeko prest gelditu eta Mubil Fundazioaren adostasuna jaso dutenean.

Kabinen instalazioan eta fabrikatzailearen dokumentazioa behar duten elementuen kasuan, fabrikatzaileek adierazitakoa beteko da.

Entrega egiteko momentuan edo ondorengo instalazioan kalteren bat ikusiko balitz, biltegiratzea, ontziratzea, garraioa edo lana gaizki gauzatu delako, entrega ez da onartuko eta kabinak berehala ordezkatu beharko dira, adjudikaziodunaren kontura. Hori guztia Administrazio Klausula Partikularren Agiriko zehapenen klausulan jasotakoa kaltetu gabe.

Adjudikaziodunak bere kargura eta bere bitartekoekin bildu beharko ditu hornitutako kabinen bilgarriak edo babesak, eta baita instalazioan sortutako gainerako hondakinak ere.

Kabina intsonorizatuen instalazioan, horien funtzionamendua ulertzeko behar diren agiri, gidaliburu eta eskuliburu guztiak entregatuko ditu adjudikaziodunak, oinarrizko osagaiak adierazten dituen dokumentazio teknikoarekin batera.

Kabinak entregatzeko gehieneko epea: 6 aste.

7. SALMENTA ONDORENGO ZERBITZUA

Jarraian adierazi dira salmenta ondorengo laguntza teknikoak bete beharreko baldintzak:

Adjudikaziodunak arreta teknikoa eskaintzen duen salmenta ondorengo zerbitzu bat izango du, ager litezkeen gorabeherak kudeatzeko eta/edo laguntza emateko (kostu gehigarririk gabe, eskainitako berme epean zehar).

Arreta teknikoko zerbitzu hori Mubil Fundazioaren eskura egongo da, telefono eta posta elektroniko biez, gorabeherak jakinarazteko edo kontsultak egiteko, 8:00etatik 20:00etara, lanegunetan.

Zerbitzu teknikoak 48 orduren buruan, lanegunetan, konponduko ditu gorabeherak gehienez. Epe hori gorabehera jakinarazten denetik hasiko da zenbatzen.

8. BERMEAK

Enpresa lizitatzaileek adjudikazioaren objektua diren produktu amaitu guztiak bermatuko dituzte, fabrikazio akats edo ezkutuko akatsen aurrean, gutxienez ere hiru urtez, Mubil Fundazioak entrega onartzen duenetik hasita. Hala ere, lizitatzailearen proposamenean, epe hori zabaldu ahal izango da.

Kabina intsonorizatuen bermeak barne hartuko ditu materialak, osagaiak, konexio elementuak, softwarea, etab. Adjudikaziodunaren kontura izango dira hondatu diren edo akatsa duten elementuak konpontzeko edo ordezkatzeko hornidura, garraio eta kudeaketa gastu guztiak, berme epean zehar.

Adjudikaziodunak behar adina esku hartze egingo ditu tokian bertan kabinetan edo horien osagaietan antzemandako akats, funtzionamendu arazo, narriadura edo gorabehera guztiak zuzentzeko, horren barne direla diagnostikoa, eta kasuko elementuaren edo elementuen ordezkatze edo konponketa, eskainitako berme epean zehar.

9. ORDEZKO PIEZEN ESKURAGARRITASUNA

Osagai eta ordezko piezak eskuragarri egongo direla idatziz berrestea eskatzen da, kabina intsonorizatuak konpondu ahal izateko, gutxienez ere kontratua formalizatu eta hamar urtez. Eskaintzan ordezko piezen eskuragarritasun epe luzeagoa eskaini bada, dokumentua eskainitako epearen arabera doituko da.

Ordezko piezen eskuragarritasuna: gutxienez ere hamar urtez, kontratua formalizatzen denetik hasita.

Donostian,

44128753X
IGOR
VILLARREAL (R:
G75223388)

Digitalki sinatuta norengandik: 44128753X IGOR VILLARREAL (R: G75223388)
Data: 2025.02.04 12:50:17 +01'00'

Igor Villarreal Sarria
Mubil Fundazioko zuzendari nagusia